BOLETÍN OFICIAL DE BIZKAIA BOB



KIROL SUSTAPENERAKO DIRU-LAGUNTZEN EMAKIDA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

## Kirol sustapenerako laguntzen gaineko Udal Araudia

### I. Xedea

Berangoko Udalak araudi hau ezartzen du, Berangoko Udalerrian erroldatuta egon eta Getxoko Fadura edo Sopelako udal kiroldegietako urtebeterako abonamenduaren (familia zein banakakoak) titularrei diru-laguntzak emateko prozedura eta printzipio orokor eta partikularrak zehazteko xedez. Horrela, bada, ez dira diruz lagunduko, Getxoko kiroldegiari dagokionez, urtebetekoa baino iraupen laburragoa duten abonamenduak edo aribideko urtekoak ez direnak, eta, Sopelako kiroldegiari dagokionez, urtebetekoa baino iraupen laburragoa duten abonamenduak edo aurreko urtekoak ez direnak.

ORDENANZA REGULADORA DE LA CONCESIÓN DE SUBVENCIONES PARA PROMOCIÓN AL DEPORTE

## Normativa Municipal sobre ayudas para promoción al deporte

### I. Objeto

El Ayuntamiento de Berango establece la presente normativa con el objeto de fijar el procedimiento y los principios generales y particulares para la concesión de subvenciones a aquellas personas empadronadas en el municipio de Berango que sean titulares de abonos anuales, tanto familiares como individuales, en el polideportivo municipal de Fadura en Getxo o de Sopelana, no serán subvencionables, en cuanto al polideportivo de Getxo, los abonos de duración inferior a una anualidad y que no correspondan al año en curso y, en cuanto al polideportivo de Sopelana, los abonos de duración inferior a una anualidad y que no correspondan al año anterior.

cve: BAO-BOB-2012a127

BOLETÍN OFICIAL DE BIZKAIA BOB



## II. Aurrekontu aurreikuspena

Udalak diru laguntzak emateko aurrekontu partida bat zabalduko du urtero. Diru laguntzon esleipenerako baldintza izango dira ebazpenaren unean nahikoa kreditu izatea eta Udal Kiroldegia eraikitzeko lanak hasi barik egotea.

## III. Diru laguntzen zenbatekoa

Diru laguntzen zenbatekoa Getxoko edo Sopelako abonamendudunen kuotaren zenbateko berberean jartzen da, xedea, bai familia-abonamenduei bai banakakoei dagokienez, Berangon erroldatutako herritarrek Getxon edo Sopelan erroldatutakoek duten kuota berbera izatea delako.

## IV. Diru laguntzak emateko oinarrizko arauak

1. Diru laguntzak ematea Alkate jaun/andrearen eskumena da.

2. Emandako diru laguntzak ez daitezke aurrerakintzat har.

3. Ez daiteke eska diru laguntzaren handitze edo berrikustapena.

4. Aipatutako kiroldegira joateko garraioa ez da diruz lagunduko.

## V. Eskatzaileak

Berangoko Udalerrian erroldatuta egonda, Getxoko Fadura edo Sopelako Udal Kiroldegirako familia zein banakako abonamenduaren titular diren guztiek eskatu ahal izango dute diru laguntza.

## VI. Eskaeren aurkezpena

Diru laguntzarako eskaerak Udalbatzako Alkate jaun/andreaari zuzendutako eskaera orri ofizialean aurkeztu behar dira, ondoren zerrendatzen diren agiriekin batera:

1. Abonamendua ordaindu izanaren ziurtagiria edo fakturaren kopia.

2. Familia-abonamenduaren kasuan, Familia-liburuaren fotokopia.

3. Familiaren edo norbanakoaren erroldatze-ziurtagiria.

Aurkeztutako dokumentazioa urri edo ez-osotzat hartuko balitz, Udal honek berarentzat gordetzen du ziurtagiri gehiago eskatzeko eskubidea, kasuan-kasuan, interesatu bakoitzaren ezaugarrien arabera zehaztuko liratekeenak.

## VII. Onarpena

Urteko lehen hiruhilekoan aurkeztuko dira eskaerak. Eskaera aurkeztu eta hilabeteko epean jakinaraziko da eskaera onartu edo atzera bota den.

Berangon, 2012ko ekainaren 27an.—Alkatea, María Isabel Landa Gaubeka

(II-5158)

## II. Previsión presupuestaria

El Ayuntamiento destinará anualmente una partida presupuestaria para la concesión de subvenciones y la adjudicación de las mismas quedará condicionada a la existencia de crédito suficiente en el momento de la resolución y mientras no se acometa la construcción del Polideportivo municipal.

## III. Cuantía de las subvenciones

La cuantía subvencionable se establece en el importe de la cuota para los abonados del municipio de Getxo o Sopelana, a los efectos de que el empadronado en Berango tenga la misma cuota que el de Getxo o Sopelana, tanto en abonos familiares como individuales.

## IV. Normas básicas para el otorgamiento de subvenciones

1. El otorgamiento de las subvenciones compete al/a la Sr./Sra. Alcalde/sa.

2. Las subvenciones otorgadas no serán invocables como precedentes.

3. No será exigible aumento o revisión de la subvención.

4. No entrará dentro del concepto subvencionable el transporte hasta las referidas instalaciones deportivas.

## V. Solicitantes

Podrán solicitar subvención todas aquellas personas empadronadas en el municipio de Berango, y que sean titulares de abonos, tanto familiares como individuales, en el Polideportivo Municipal de Fadura en Getxo o de Sopelana.

## VI. Presentación de solicitudes

Las solicitudes de subvención deberán ser presentadas en instancia oficial dirigida al/a la Sr./Sra. Alcalde/sa.de la Corporación y deberán ir acompañadas de:

1. Copia de la factura o justificante de pago del abono.

2. En caso de abono familiar, fotocopia del Libro de Familia.

3. Certificado de empadronamiento familiar o individual.

Si la documentación aportada fuera considerada insuficiente y/o incompleta, este Ayuntamiento se reserva la facultad de requerir nuevos justificantes que se concretarían en función de las peculiaridades de cada interesado.

## VII. Aprobación

Las solicitudes se presentarán durante el primer trimestre del año y se comunicará la concesión o denegación de la solicitud en un plazo de un mes a partir de su presentación.

En Berango, a 27 de junio de 2012.— La Alcaldesa, María Isa- bel Landa Gaubeka

(II-5158)